

Ekintza Plana 2023



Dokumentu honek Agentziaren 2023ko jarduerak jasotzen ditu euskal turismoa kudeatzeko ezinbestekoak diren bi txostenetan oinarrituak, hau da, plan estrategikoa eta marketin-plana, sektorearen erronka eta joera berriei erantzuteko helburuarekin, iraunkortasuna eta kalitatea bermatuko duen xedearekin, eta eskaera gero eta zorrotzago baten arabera diseinatutako eskaintza batekin egindakoak.

Helburu hori lortzeko, BASQUETOURL-ek, 9,6 milioiko aurrekontuarekin (+%4,7), erdia turismo-marketinerako erabiliko du (+%14) eta inbertsio ahalegin hau distantzia luzeko nazioarteko merkatuetan sustapena eta merkaturatzea indartzea izango da, hau da, pandemiaren ondoren gehien sufritu duten merkatuetan: Brasil, Argentina, EE.BB eta Japonia. Bereziki merkatu hau landuko dugu, Motor Japonia Taldea ekimenaren bitartez eta jaurlaritzako sail ezberdinen partaidetzarekin. Gainera, "Meet Basque Country" delakoa, mundu osoko agentzia eta turoperadoreen topaketa Euskadin, antolatuko dugu berrito eta bi urteroko egiturazko jarduera gisa finkatuko dugu.

Gure beste apustu nagusietako bat Turismo Adimena da. Hiriburuak dagoeneko THA (DTI) programa ezberdinak ezartzen ari dira, 2022an Arabako

Errioxan, Goierri eta Uribeko eskualdeetan garatu ondoren; aintzindariak izan ziren. 2023an, gutxienez, 5 eskualdetan zabalduko dugu programa horien garapena.

Era berean, Behatokiak hainbat ikerketa-arlotan lan egingo du: Euskadiko turismo-industriaren arloan, eskaria helmugan, jatorrian eta onlinekoa landuz; eta euskal gizartearen arloan, profesionalei helmugari buruzko ezagutza emateko asmoarekin, planifikatu, erabakiak hartu eta emaitzen eragina neurtu ahal izan dezaten, tresna fidagarrien bidez.

Apustu estrategikoetan ere parte hartuko dugu konektagarritasunari dagokionez, merkatu objektiboen sustapen-estrategia eta beste erakunde batzuekiko lankidetzan.

Eta erakunde arteko eta lankidetzak publiko-pribatua indartuko dugu, helmugaren eta euskal turismo-industriaren eraginkortasuna eta indartzea bilatuz.

Ilusioz ekingo diogun erronka.

Agur bero bat.

DANIEL SOLANA

Basquetour-Turismoaren Euskal Agentziako zuzendaria

**BASQUE
TOUR** turismoaren
euskal agentzia
agencia vasca
de turismo



EUSKADI
BASQUE COUNTRY



AURKIBIDE

GOBERNANTZA

04

1. Euskal turismoaren balio-kateko enpresei laguntzea. 05
2. Enpresen arteko eta erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua sustatzea. 06

LANKIDETZA PUBLIKO PRIBATUA ETA

LURRALDE-GARAPENA

07

1. Turismoaren euskal sarea (SARETOUR) 08
2. Enpresen arteko eta erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua sustatzea 08

HELMUGA LEHIAKORRA, ETIKOA ETA

ADIMENDUNA

09

1. Euskadiko Turismoaren Kode Etikoa 10
2. Helmuga turistiko adimendunak 11
3. Turismo-enpresa adimenduna 12
4. Prestakuntza 12

EUSKADIKO KONEKTAGARRITASUNA

ETA MUGIKORTASUN TURISTIKOA

13

1. Estatistika 14
2. Sustapena 14

EUSKADIKO BEHATOKI TURISTIKOA

15

1. Euskadiko Turismo-industria 16
2. Turismo-eskaria helmugan, jatorrian eta *online* 16
3. Euskal gizartea 17
4. Adimen Turistikoko Sistema 17

MARKETINA

18

1. Eskaintza turistikoaren antolakuntza lehentasunezko produktu turistikoak oinarri hartuta 19
2. *Trade* eta sektore profesionala 26
3. Amaierako publikoa 28
4. Ordezkaritza agentziak 29
5. Aliantzak eta harreman komertzialak 29
6. Ekitaldi estrategikoak 29
7. Produktu sareak 29

KOMUNIKAZIOA

31

1. Komunikazio korporatiboa 32
2. Helmuga eta helmugako produktu turistikoak sustatzeko komunikazioa 32

ZERBITZU KORPORATIBOAK

33

1. Euskara 34
2. Berdintasuna 34

1

GOBERNANTZA

- Euskal turismoaren balio-kateko enpresei laguntzea.
- Enpresen arteko eta erakundeen arteko lankidetza eta lankidetza publiko-pribatua sustatzea.

ESG
Environmental · Social · Governance





01

Euskal turismo-estrategiak

koordinatzea: sektorearen eskaria



Helburua

Inbertsio eraginkorragoa lortzea, merkatura indar handiagoz iristea eta sektorearen parte-hartzea koordinatzea.

Ekintzak

1.1. Mahaiak, foroak eta lan-topaketak

Enpresa-elkartekin eta erakunde publikoekin bilerak egiten jarraitzea, ekintza-planak alderatzeko eta estrategiak, adimen turistikoa buruzko datuak eta enpresa-premiak bateratzeko.

1.2 Turismo arloko plan estrategikoetan parte hartzea

Aurrera jarraitzea lankidetzaren lanarekin eta laguntza nahiz aholkularitzarekin euskal helmugetako plan zuzentzaileetan eta estrategietan.

1.3. Europako laguntzak eta proiektuak

Helburua: Helburua: laguntza ematea COVID-19aren pandemiaren ondoriozko kalte ekonomiko eta sozialak arintzeko *Next Generation* EB funts europarren kudeaketan.

1.3.1 NEXTEUSBCTI proiektua:

"Euskadi Basque Country Tourism Intelligence" proiektuak proposatzen du berrikuntzan eta digitalizazioan oinarritutako ekosistema turistikoa adimendun bat sortzea, ondoko hauek baliatuz:

- Helmuga Turistiko Adimendunaren metodologia (DTI)
- Enpresa Turistiko Adimendunaren Eredua (ETA)
- eta Adimen Turistikoko Sistema (SIT Euskadi)

1.3.2 PASTD proiektua (Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Plan Autonomikoak):

Urtero definitzen dira toki-erakundeekin batera eta, Euskadiren kasuan, Eusko Jaurlaritzak zehaztutako prozesu baten bidez.

Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Planen helburua da aurrera egitea helmuga turistikoen eraldaketan, jasangarritasunean oinarritutako eredu baterantz abiatzeko, beti ere oinarritzat hartuz TMEn turismo jasangarriaren definizioa: "eredu bat, zeinak osoki kontuan hartzen baititu ekonomian, gizartean eta ingurumenean dituen egungo zein etorkizuneko ondorioak, eta zeinak erantzuna ematen baitie bisitarien, industriaren, ingurumenaren eta harrera-komunitateen beharrei".

1.3.3 ZAP proiektuak (Lehentasunezko Arreta Eremuak):

Lehentasunezko jarduketaren eremuetako aktibo turistikoa sustatu eta balioesteko planaren helburua da ekonomia eta enplegua suspertzea trakzio-indarra egiten duten proiektu turistikoen bidez. Eusko Jaurlaritzak 6,5 milioi euroko ezohiko ekarpen bat egingo du "Berpiztu" programaren bidez, jarduera turistikoa garatzeko hainbat udalerriri eta eskualdetan.

1.3.4. PRTR laguntzak / "Esperientziak" proiektua

Euskadik, Basquetourren bitartez, proposamenak egingo ditu Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren parte hartzeko Espainiako Turismo Esperientziak sortuz eta indartuz, helburua baita turismo-eskaintza dibertsifikatu eta desestacionalizatzea.

Laguntza horien helburua da esperientzia turistikoa jasangarri, digital, integratzaile eta lehiakorrak garatzeko dituzten eragile-sareen proiektuak bultzatzea Estatu mailan edo gutxienez hiru autonomia-erkidegotan. Proiektu horiek lan-ildo hauetako baten barruan kokatuko dira: INNOVA, INTEGRA, COMUNICA.

Akordio estrategikoak eta aliantzak finkatzea, sareetan parte hartzea...

2.1. Sareetan eta lantaldeetan parte hartzea

2.1.1 Estatu mailako taldeak eta sareak

- Turismoko Estatu Idazkaritza (**SETUR**), Espainiako Gobernuako Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren menpekoa.
- Berrikuntzaren eta Turismo-teknologiaren Kudeaketarako Estatuko Sozietatea (**SEGITTUR**), Espainiako turismo-sektorean berrikuntza eta teknologia bultzatzeko bitartekoa.
- Autonomia erkidegoetako **turismo jasangarriko** taldea.
- Helmuga Turistiko Adimendunen Espainiako Sarea.
- Kalitate Turistikoko Institutua (**ICTE**). Basquetour-ek ordezkartitza eta lotura lanak egiten ditu ICTEren eta euskal erakundearen artean.
- **EUSKALIT**, fundazio gisa eratutako erakunde-taldea, Eusko Jaurlaritzak bultzatua Kudeaketa Aurreratua sustatzeko.
- Berrikuntzaren Euskal Agentzia (**INNOBASQUE**), Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sistema koordinatu eta bultzatzeko.
- Turismoaren Kalitaterako Estatuko Lantaldea (**GTCT**), non autonomia-erkidego guztiek parte hartzen duten.
- Helmugaren arteko Batzordea, Helmugetako Turismo-Kalitaterako Sistema Integrala (SICTED) kudeatzeko.
- **Espainia Berdea**.
- **Espainiako ekoturismo elkarte**.
- Espainiako Kide Ugariko Familien Federazioa (**familia-turismoa**).
- **Bide Berdeen** Espainiako Fundazioa.
- Vasco Navarro Trenbidearen, Inaziotar Bidearen eta Donejakue Bidearen lan-mahaiak.

2.1.2 Nazioarteko taldeak eta sareak

- **Arku Atlantikoko Batzordeko** Turismo-taldea.
- **TME**, Turismoaren Munduko Erakundea: TMEko kide afiliatuak eta TMEko Afiliatuen Zuzendaritza Batzordeko kidea 2022-2025 aldirian.
- **Turismoaren Munduko Etika Batzordea** 2022-2025 aldirian.
- **Normalizazio- eta ziurtapen-taldeetan parte hartzea**: CTN 178: SC 5 Helmuga Adimendunak, WG 13 Sustainable Tourism + TC 228 Plenary Meeting, WG 14 Accessible Tourism + TC 228 Plenary Meeting.
- **NECSTouR Sarea**, Turismo jasangarri eta lehiakorren Europako Eskualdeen Sarea, nazioz gaindiko proiektuak detektatu eta sektoreari eskaintzeko.
- **ECOTRANS Sarea**, Turismo Jasangarria Garatzeko Europako Sarea, nazioz gaindiko proiektuak detektatu eta sektoreari eskaintzeko.
- **DTI Sarea**, Helmuga Turistiko Adimendunen Espainiako Sarea, proiektu nazionalak detektatu eta sektoreari eskaintzeko.
- Industria Ondarearen Europako Ibilbidea (**ERIH**).
- **Bide Berdeen** Europako Elkarte.
- Europako **GATURI** proiektua (turismo gastronomikoa).
- **Wildsea Europe** Kostaldeko Ekoturismo Sarea.

2.2. Akordioak enpresa-elkarteekin eta erakunde publiko-pribatuekin bitartekari estrategiko gisa duten papera indartzeko.

The cover features a background of hands reaching up, overlaid with a large green semi-circle and a light blue circle. The title is centered within the light blue circle. Decorative elements include a small blue arrow icon in the top right and a large blue arrow icon in the bottom right, both set against a dotted background. A large white arrow icon is positioned below the title circle.

2

**LANKIDETZA PUBLIKO
PRIBATUA ETA LURRALDE-
GARAPENA**



01

Turismoaren euskal sarea (Saretour)

Helburua

Euskal enpresa-sarea indartu eta bultzatzea, eta enpresen arteko zein erakundeen arteko lankidetzak eta lankidetzak publiko-pribatua sustatzea.

Ekintzak

1.1 Konekta Euskadi

Toki komun bat garatzea, non turismo arloko enpresa eta erakundeak elkartuko diren turismoaren euskal ekosistemako ekimenak, topaketak eta gobernantza-foroak partekatzeke.

1.2 Ezagutza-, lankidetzak- eta inspirazio-foroak

Turismo-sektorerako baliagarriak diren eduki, topaketa eta materialak sortzea: jardunbide egokiak, *webinar-ak*, topaketak, *speed meeting-ak*, informazio-fitxak eta -pilulak eta material interesgarriak.

1.3 Web berria

Web orri berria, enpresa bazkideen beharretara egokitua, dinamikoagoa, erabilgarriagoa eta arinagoa.

1.4

Turismo arloko lankidetzak-proiektuak lagundu eta dinamizatzea eta aholkularitza ematea, eta enpresa-ekimen interesgarriak artatzea.

1.5 Euskal enpresa turistikoaren foroak

Hainbat mugarri dituzten turismo-kudeaketako enpresa, elkarte eta erakundearen topaketak, turismo arloko market place baten eta elkartruckerako foro baten oinarriak ezartzeko.



02

Enpresen arteko eta erakundearen arteko lankidetzak eta lankidetzak publiko-pribatua sustatzea

Helburua

Inbertsio eraginkorragoa lortzea, egungo gobernantza-ereduak hobetzea, eta sektoreak eredu horietan duen parte-hartzea koordinatzea.

Ekintzak


2.1. Bilera operatiboak egitea foro eta mahai sektorialekin nahiz erakunde artekoekin, bai planak aztertzeke, bai eta estrategiak, adimen turistikoak datuak eta enpresen premiak sektorearekin kontrastatu eta partekatzeke.

2.2. Euskal turismo-sektorearen erradiografia: sektorearen "gogo-aldate turistikoa" jasotzen duen dokumentua, urte osoan zehar eta kapituluetan bildua Turismoaren Euskal Sarearen bidez.



3

**HELMUGA
LEHIAKORRA, ETIKOA
ETA ADIMENDUNA**



Helburuak

- Helmuga jasagarria, segurua eta arduratsua izatea.
- Lehen mailako adimen turistikoko sistema bat edukitzea erabakiak hartzeko.
- Lurralde-garapen turistikoa optimizatzea.
- Sektorearen lehiakortasuna hobetzea eta enpresei laguntzea beren garapenean.

01

Euskadiko turismo Kode Etikoa

2030 Agendako Garapen Jasagarriko 17 Helburuak (GJH) betetzen laguntzea.

Ekintzak

1.1 Kode etikoaren programa ezartzea erakunde publiko-pribatueta:

- Abiarazte fasean, laguntza ematea proiektuan parte hartzen duten erakundeei, eta laguntza ematea baita ere euskarri-materiala sortzeko.

1.2 Prestakuntza:

- Prestakuntzen etengabeko eskaintza erakundeek aurrera egin dezaten Kode Etikoaren 8 printzipioak ezartzeko bidean.

1.3 Euskadiko Turismoaren Etika Batzordea finkatzea:

- Batzordeak Kode Etikoaren etengabeko hobekuntzarako informazioa bilduko du eta erakunde parte-hartzaileek egoki ezarri dutela egiaztatuko du.

1.4 Euskadiko Turismoaren Etika Erregistroan izena ematea:

- Etika Batzordearen oniritzia lortzen duten erakundeak Euskadiko Turismoaren Erregistroan inskribatuko dira, sustatuak izan daitezen turismo jasagarri eta arduratsuaren aldeko ekimenetan.

1.5 Aitorpena

- Proiektuan parte hartzen duten erakundeen aitorpen ekitaldia.

1.6 Sustapen kanpaina:

- Kodea eta bere printzipio eta baloreak hedatzeko kanpaina.
- Proiektuaren sustapen-*landing-a* abiaraztea.

1.7 "Turista Arduratsuaren Gida" sustatzea

- "Turista Arduratsuaren Gida" banatzea erakunde turistikoei eta bisitariei, Euskadiko turismo arduratsua sustatzeko, Kode Etikoak dioen bezala.





02

Helmuga turistiko adimendunak

Helburua:

Kode Etikoaren printzipioak jarraituz, Euskadi helmuga turistiko adimendun eta errealizatu bihurtzea berrikuntza eta teknologiaren bidez, ekonomikoki, sozialki, kulturalki eta ingurumen aldetik integratzailea, irisgarria, inklusiboa eta jasagarria izango den ikuspegi bat sustatuz.

2.1 Helmuga Turistiko Adimenduna" proiektua:

Helburua:

SEGITTURek garatutako Helmuga Turistiko Adimenduna (HTA) metodologia aplikatzea. Abangoardiako azpiegitura teknologiko batean oinarritua dagoen eta turismo-lurraldearen garapen jasagarria eta irisgarria bermatzen duen helmuga baten berrikuntza-maila diagnostikatzen du. Bisitariaren eta ingurunearen arteko elkarreragina eta integrazioa ahalbidetzen du, bere esperientziaren kalitatea areagotzen du eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzen du.

Ekintzak:

- HTA eredua 5 helmuga berritara hedatzea: Bidasoa, Bilbo, Debagiena, Getxo eta Arabako Haranak.
- HTA eredura atxikitako helmugen Ekintza-planen jarraipena egitea lankidetzak-akordioak sortuz helmuga bakoitzeko erakunde publiko-pribatuekin: Goierri (Goitur), Arabar Errioxa (Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidea) eta Uribe (Jataondo).

- Berritze fasean dauden HTA helmugen jarraipena: Donostia (Donostia Turismoarekin lankidetzan), Gasteiz (Gasteizko Udalarekin lankidetzan).
- Agente kolaboratzaileak trebatzea HTA eredua eta metodologia ezartzeko.
- SEGITTURekin kolaboratzea Euskadin HTA eredua hedatzeko behar diren tresnak diseinatu eta garatzeko.
- HTA Sareko toki-erakundearen eraldaketa digitalerako eta modernizaziorako ekintzetan laguntzea.
- HTA Sarean aktiboki parte hartzea, Estatuko gainerako helmugekin ahalik eta lankidetzak handiena lortzeko eta euskal helmuga turistiko adimendunen sare horretako partaidetza sustatzeko.



03

Turismo-enpresa adimenduna

Helburua

Euskal turismo-sektoreari eredu berri bat ematea, zeinak, Etika Kodearen printzipioei jarraiki, turismo-enpresak eraldatuko baititu enpresa berritzaile eta teknologikoki aurreratuak izan daitezten, eta eskualde turistikoaren garapen jasangarri, irisgarri eta arduratsua bultzatu eta turistek helmugan duten esperientzia hobetu dezaten.

Ekintzak

3.1 Turismo-enpresa Adimenduna (TEA) proiektua:

- Turismo-enpresa Adimendunak (TEA) aitortzeko eredu berri bat diseinatu eta garatzea SICTED proiektua oinarritzat harturik, sistema integral bat izateko Turismo Ministerioarekin lankidetzan.
- Turismo-enpresa Adimendunaren ziurtapenak emateko eredu berri bat diseinatu eta garatzea AENOREkin lankidetzan.

3.2 Ingurumen jasangarritasunaren eta energia eraginkortasunaren proiektua:

- Lankidetzan aritzea IHOBerekin (Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa) eta EEERekin (Energiaren Euskal Erakundea), euskal turismo-enpresei Europako Etiketa Ekologikoaren (ECOLABEL) ziurtagiria emateko eta Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria eman eta erregistratzeko.



04

Prestakuntza

Euskal sektore turistikoaren profesionalizazioa bultzatzea araututako eta arautu gabeko prestakuntza-eskaintzaren bidez.

Ekintzak

4.1 Onlineko eta aurrez aurreko prestakuntza-ekintzak garatzea:

- Irisgarritasuna: irisgarritasunaren euskal erudian jasotako bost aniztasun funtzionaletan.
- Gaitasun Digitalak: SPRIrekin eta Estatuko Turismo Idazkaritzarekin lankidetzan.
- Kudeaketa
- Berrikuntza
- Jasangarritasuna
- Produktua

4.2 Arautu gabeko prestakuntza-eskaintza eguneratzea:

- Egutegi eguneratu bat egitea Euskadiko turismo-erakundeei zuzendutako eskaintza osoarekin.

4.3 Arautu gabeko prestakuntza-eskaintza eguneratzea:

- Egutegi eguneratu bat egitea Euskadiko turismo-erakundeei zuzendutako eskaintza osoarekin.

4

**EUSKADIKO
KONEKTAGARRITASUNA
ETA MUGIKORTASUN
TURISTIKOA**





Mahai edo foroetan parte hartzea, helburutzat izanik helmugaren premiak eta helmugako merkatuen sustapen-estrategiarekin bat datozen konektagarritasun arloko apustu estrategikoak bateratzea.

Ekintzak

01


Estatistika

- Eusko Jaurlaritzako Garraio Sailarekin batera egindako azterlan bateratuak, bisitatzen gaituztenek helmugara iristeko eta bertan mugitzeko duten ezagutza hobetzeko.

02

Sustapena

- Sustapen arloan lankidetzan jardutea helmugaren ikusgarritasuna hobetzeko erabaki-gune kritikoetan.
- Sustapen-sozietateei laguntzea ikuspegi turistikoko sustapen-ekintzetan, dauden ibilbideak indartzeko edo ez daudenak erakartzeko.





5

EUSKADIKO BEHATOKI TURISTIKOA

**Ikerketa-proiektuak diseinatzea eta inplementatzea,
profesionalei jomugaren berri emateko,
planifikaziorako, erabakiak hartzeko eta emaitzen
eragina neurtzeko tresna fidagarrien bidez.**

2023. urtean Euskadiko Behatoki Turistikoak ikerketa-
arloan hauetan lan egingo du:

02

Turismo-eskaria helmugan, jatorrian eta online

Helburuak

- Bisitatzen gaituztenen eta bisitatu gaitzaketenen profila eta portaera identifikatu, ezaugarritu eta aztertzea.
- Helmugako mugikortasuna identifikatu eta aztertzea.
- Euskadiren posizionamendua eta ospea identifikatu eta aztertzea.

Ekintzak

Eskaria helmugan.

1. "IBILTUR"-en beste edizio bat garatzea 2023. urterako. IBILTUR bi urterik behin egiten den eragiketa bat da. Eragiketa hori Eusko Jaurlaritzaren Euskal Estatistika Planaren eragiketa ofizialen barruan dago.
2. Lurraldeko turismo-fluxuen mugikortasuna neurtzeko proiektu bat diseinatu eta garatzea.
3. Helmugako eskariaren adierazle sektorialak identifikatu, bildu, aztertu eta garatzea Euskadirako, bigarren mailako informazio-iturrien bidez.

Onlineko eskaria.

1. Online kanaletan turismo-eskaria monitorizatzen jarraitzea Euskadiren onlineko ospea ezagutzeko, horretarako aztertuz bisita turistikoaren aurretik, bitartean eta ondoren emandako edukiak eta iruzkinak.
2. Onlineko eskariaren adierazle sektorialak identifikatu, bildu, aztertu eta garatzea Euskadirako, bigarren mailako informazio-iturrien bidez.

Eskaria jatorrian.

1. Helmugako marka aztertzeke eta merkatu igorleetako bidaia-ohiturak ezagutzeko azterlanaren edizio berri bat garatzea. Eragiketa honetan informazioa jasotzen da hainbat elementuri buruz: Euskadi helmugaren posizionamendua eta ospea, bere ezaugarrien pertzepzioa, gure markari buruzko ezagutza eta marka hori nola baloratzen den. Orobat aztertzen dira alderdi ekonomiko eta sozial nagusiak, turisten bidaia-ohiturak eta Euskadira bidaiatzeko asmoa.
2. Jatorriko eskariaren adierazle sektorialak identifikatu, bildu, aztertu eta garatzea Euskadirako, bigarren mailako informazio-iturrien bidez.



01

Euskadiko Turismo- industria

Helburua

Euskadiko enpresa-sare turistikoaren egungo eta etorkizuneko egoera identifikatzea, ezaugarritzea eta diagnostikatzea.

Ekintzak

- "Euskadiko turismo-industriaren barometroa" izeneko urteko eragiketaren edizio berri bat garatzea 2023rako. Eragiketa propio baten bidez, 2023. urteko balantzeari eta 2024. urterako sektoreko enpresen aurreikuspenei buruzko datuak eguneratzea, eta kasuan kasuko adierazle sektorialak garatzea. Eragiketa hori Eusko Jaurlaritzaren Euskal Estatistika Planaren eragiketa ofizialen barruan dago.
- Euskadiko turismo-produktuen klubetako kide diren enpresen onlineko ospearen monitorizazioa eguneratzea eta jarraipena egitea.
- Euskadirako adierazle sektorialak identifikatu, bildu, aztertu eta garatzea, bigarren mailako informazio-iturrien bidez.



03

Euskal gizartea

Helburua

Turismo-jarduerak Euskadiko biztanlerian duen eragina identifikatu, ezaugarritu eta diagnostikatzeari.

Ekintzak

- "Euskal gizarteak turismoari buruz duen pertzepzioa" izeneko eragiketaren edizio berri bat garatzea 2023. urterako. Helmuga iraunkorra izateko ezinbestekoa da jakitea turismo-jarduerak nolako eragina duen Euskadiko biztanlerian, eta aztertu behar da nola uztartzen den bertako biztanleen egunerokotasunarekin.
- Euskadirako adierazleak identifikatu, bildu, aztertu eta garatzea, bigarren mailako informazio-iturrien bidez.



04

Adimen Turistikoko Sistema

Euskadiko Behatoki Turistikoak sortzen dituen datu guztiak Adimen Turistikoko Sistemari (SIT Euskadi) integratzen dira, zeinak ekintza hauek garatuko baititu 2023. urtean:

- Informazio-iturri berriak integratzea:
- Argitaratutako datu-panelen analisia eta bistaratze dinamikoa hobetzea.
- Panel guztietako datuak mantendu eta eguneratzea.

Aurreikusitako beste ekintza batzuk:

- Beste neurketa-eredu batzuk berrikusi, diseinatu eta garatzea.
- Beste informazio-iturri batzuk bilatu, berrikusi eta aztertzea.
- Beste erakunde batzuek bultzatutako eragiketak Euskadiko turismoaren errealitateari aplikatzea.



Non dago Euskadiko Turismo Behatokiaren informazio guztia?

Euskadiko Turismo Behatokia - [Euskadi.eus](https://euskadi.eus)



6

MARKETINA



01

Eskaintza turistikoaren antolakuntza

lehentasunezko produktu turistikoak oinarri hartuta



Helburua

Produktu-plan eraginkorrak egitea, kontuan hartuta eskaria, eskaintzaren kalitatea eta ezarritako estrategia eta helburuak, baina argi finkatuz lehentasunak eta segmentuak, haietara zuzendutako baliabideak eraginkortasunez erabiltzeko.

Euskadi Gastronomika

Helburuak:

- Gure baloreak, gure bereizgarria: "Euskadi Gastronomika baloreak" zabaltzea turismo gastronomikoaren garapenaren epizentroan kokatzeko, bi helburu nagusirekin: batetik, balio printzipioetan oinarritutako lan-metodologia bat zabaltzea eta, bestetik, Euskadi lidergoan mantentzea nazioarteko erreferentziazko helmuga gastronomikoen artean.
- Benetako itzulera: balioa eta itzulera sortzea sarea osatzen duten enpresa eta eragileentzat.
- Komunikazio baliotsua: eduki baliotsuak sortu eta komunikatzea kanal eta formatu berrietan. Ezagutzen ez dena azaltzea eta jakina dena modu berri batean kontatzea.
- Gastronomia erdigunean: sustapena handitzea foro eta ekitaldi interesgarrietan, batik bat nazioarteko merkatuetan.

Ekintzak:

Gobernanza:

- "Euskadi Gastronomika Baloreen Gutuna" argitaratzea.
- Euskadi Gastronomika sarearen parte-hartze metodologia berria zabaldu eta inplementatzea.
- Euskadi Gastronomika sarerako sarbide digitala inplementatzea.
- EG sarea osatzen duten enpresen konpromisoa berritu eta eguneratzea.
- Enpresa berriak sartzea EG sarean.
- Aliantzak bideratu eta bultzatzea EG sarearentzat estrategikoak diren sare eta eragileekin.
- Marka posizionatzea diziplina anitzetako ekitaldi garrantzitsuetan.
- Eskaintza, ekintzak eta esperientziak sortzea segmentu espezifikoaren arabera, aurtun fokua jarrita familia-turismoan.
- Prestakuntza: "Ongi-etorri pack" bat eta "Etengabeko hobekuntza plan" bat garatzea sareko enpresentzat.

- Prestakuntza espezializatua *Basque Culinary Center-ekin* lankidetzan.
- Prestakuntza ITOURBASK sareari eta ostatu garrantzitsuenei EGren webgune berriari buruz, bezeroei gomenda diezaieten eta aktualitateari buruzko bloga nahiz esperientzien atala erabil ditzaten.
- Eduki baliotsuak komunikatzeko kanal bat sortu eta abiaraztea gure kulturari eta bereziki gure kultura gastronomikoari buruz.
- Eduki berriak sortzea formatu gaurkotu eta berritzaileagoetan.
- Euskadi Gastronomika 2.0 webgune berria abiarazi eta posizionatzea.
- EGren bloga eta sare sozialak posizionatzea. SEO eta SEM lanak egitea eta kanpainak sortzea Euskadi Gastronomika sarearen webgunearen nahiz sare sozialen posizionamendua hobetzeko.

Sustapena eta merkaturatzea:

- Euskadi Gastronomika sarearen sustapena egitea foro, sare eta topaketa profesionaletan.
- Euskadi Gastronomika sarearen baloreak sustatzea "Mundua 4 kolorez margoturik" erakusketa ibiltaria sortuz eta zabalduz.
- Alderdi gastronomikoa lantzen duten topaketa eta ekitaldi turistikoetan parte hartzea Euskadi Gastronomika sarea sustatzeko.
- Sustapen ekitaldiak diseinatu eta antolatzea merkatu interesgarrietan, markaren aintzatespena hobetzeko eta Euskadi zein Euskadiko enpresak sustatzeko.
- Euskarri promozionalak eguneratzea.
- Euskarri dibulgatibo berriak sortzea publiko segmentu desberdinentzat.
- Komertzializazioa eta *networking-a* sustatzea sarean parte hartzen duten enpresen artean, eskaintza erakargarri eta lehiakorra osatzeko.

The Basque Route

Proiektu honen helburua da alternatiba bat eskaintzea Euskadi modu jasangarrian ezagutzeko, paisaia eta baliabide liluragarrienak zeharkatuz. Horretarako, 8 ibilbide proposatzen dira hiru euskal probintzietan, aukera ematen dutenak Euskadiko paisaia erakargarrienak eta baliabide turistiko garrantzitsuenak ezagutzeko.

Helburuak:

- Alternatiba bat eskaintzea fluxu turistikoak deszentralizatu edo banatzeko euskal lurralde osoan. Gainera, asmoa da bisitarien egonaldiak luzatzea eta helmugan egiten duten batez besteko gastua handitzea.
- Lurraldeko baliabide eta produktu turistiko garrantzitsuenen inbentario eguneratu bat egin eta mantentzea.
- *The Basque Route* proiektua kokatzea bisitatzen gaituztenen imajinarioan.
- Pausoak ematen jarraitzea jasangarritasun arloan.
- Behar bezain sendoa, heterogeneoa eta erakargarria izango den eskaintza

Ekintzak:

Gobernantza:

- Motozikletaren segmentu turistikoa aztertu eta garatzea *The Basque Route* proiektuaren barruan.
- Autokarabanen segmentu turistikoa aztertu eta garatzea *The Basque Route* proiektuaren barruan.
- Errepideko zikloturismoaren segmentu turistikoa aztertu eta garatzea *The Basque Route* proiektuaren barruan.
- *The e-Basque Route* mantendu eta sendotzea.
- Ibilbide tematikoak aztertu eta garatzea gainerako produktuen inguruan: Euskal Kostaldea, Ekoturismoa, Turismo Industrial, Gastronomia...
- Aliantzak edo/eta kolaborazioak sendotzea mugikortasunaren arloko eragile/markekin.
- *The Basque Route* markaren inguruko sentsibilizazioa, gizarteratzea, pedagogia eta gaikuntza.
- Euskadiko erakargarritasun turistikoaren egungo inbentarioa berrikustea.
- Etorkizuneko Euskadiko Baliabide Turistikoaren Mapa aztertu eta garatzea.➔

Sustapena:

- thebasqueroute.eus webgunea eguneratu eta hobetzea produktua sustatzeko elementu garrantzitsu gisa. Komunikazioko eta sustapeneko euskarriak garatu eta eguneratzea. Baliabide turistikoak digitalizatzea.
- Hedabideetara zuzendutako plan espezifiko bat egitea produktua sustatzeko.
- Aliantzak bilatzea erakunde publiko eta pribatuekin marka gizarteratu eta hedatzeko

Merkaturatzea:

- Produktu-aurkezpenak egitea marketin planaren barruan definitutako merkatuetan.
- *Fam Trip-ak* egitea "Meet Basque Country" ekimenaren bidez.



MICE

Sektoreari suspertzen laguntzea eta ahalegin koordinatua egiten jarraitzea gure *convention bureaux* delakoei eta gure enpresei ikusgarritasuna emango dieten sustapen-ekintzak garatzeko.

Helburuak:

